

# Folk taldeen lehenengo lehiaketa Ermuan

**E**rmuko udaleko Kultura Sailak herriko folk taldeekin elkarlanean, "Folkez Blai" folk taldeen lehenengo lehiaketa antolatu du Ermuan. Ekimena irailean ospatuko da, Ermutik kanpoko folk talde berriak ezagutzera emateko eta gaur egun daudenak sustatzeko asmoz.

Lehiaketak bi epe izango ditu. Hasierako epean, taldeek euren grabazioak aurkeztuko dituzte eta bigarren fasean, aukeratu diren 6 talde finalistek, euren lanak zuzenean aurkeztuko dituzte irailaren 8tik 10era bitartean. Finalistekin batera, folk talde ospetsu batek eskaini-

ko du kontzertua Orbe Kardinalaren plazan. Hilaren 10ean epaimahaiaren erabakia ezagutuko da. Talde irabazleak 3000 euroko saria jasoko du eta bigarren sari-tuak 1500 euro. Bigarren faseko sailkatzen diren talde guztiei diploma bat banatuko zaie.

## Folk musika sustatu

Ekimen berri honen helburu nagusia, Ermuan Folk musika zabaldu eta sustatzea da. Era berean, irailaren 8 eta 10eko asteburu horretan, Ermura hurbilduko diren folk taldeen lana sustatzea nahi da eta folk estiloa herritarrei gerturatzea. Er-



muko folk taldeek ez dute lehiaketan parte hartuko baina antolaketan arituko dira, besteak beste epaimahai lanak eginez.

Ekimena, euren musika promozionatzeko zailtasunak dituzten taldeei zuzenduta dago. Horregatik lehiaketan, kalean disko bat baino gehiago ez duten eta folk musikaren edozein alde lantzen duten taldeek har dezakete parte.

## Grabazioen aurkezpena

Lehiaketan parte hartu nahi duten taldeek, 4 abesti

dituen grabazioa aurkeztu beharko dute, maketa, KD edo biniloan. 4 kanta horietatik bi gutxienez originalak izan behar dira. Horrekin batera, taldearen historia eta eurekin harremanetan jartzeko helbide eta telefonoak, honako helbide honetara bidali beharko dituzte: Ermuko Udaleko Kultura Saila, "Folkez Blai", folk taldeen 1. Lehiaketa. Marques de Valdespina kalea 1. 48260 Ermua Bizkaia. Lanak entregatzeko epea, martxoaren 1etik maiatzaren 15era arte egongo da zabalik.

Alazne Aiestaran





## URRETA

burdindenda

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Zerrailgintza
* Brikolaia	* Kit altzariak
* Rielak	

Beharbatea 8    Tel: 943 17 65 61    ERMUA



## ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma


Aldapa 1 943 17 60 52

## Guanabakoa

### Servicios

- Ikuskizunen muntaia eta desmuntaiak
- Publizitate banaketa, formatu

Bizkaia etorbidea, 1-2    guanabakoa\_servicios@hotmail.com  
943 03 04 80 / 699 58 23 00 / 639 84 52 63



## LEIRE MAYORA

### PODLOGOIA

San Pelaio 8C, behea  
48260 Ermua  
☎ 943 17 47 44